

**BEIZAMAKO UDALA***Iragarkia*

Arauzko informazio publikorako epea inolako erreklamazio eta oharpenik aurkeztu gabe igaro ondoren, finko eta behin betiko bihurtu dira 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzen finkapen eta aldaketari buruz 2015eko urriaren 20an Udalbatzarak hartutako behin betiko erabakiak eta berauen aldatutako testuak honela geratzen dira:

ZERGAK**1. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.**

Aurrekontuaren %3,00.

· Bonifikazioak:

Interes historiko-kulturala duten eraikuntzetan %50eko bonifikazioa.

Lurzoru ez urbanizagarrian nekazal jarduera duten sustatzaileek %90eko bonifikazioa.

Obra txikiak %100eko bonifikazioa.

Babes Ofizileko Etxebizitzak %90eko bonifikazioa.

· Hobariak:

— Interes historiko-kulturala duten eraikuntzak.

Interes historiko-kulturala duten eraikinak administrazio publikoek beraien katalogo ofizialetan izaera hori ematen dieten eraikinak izango dira.

Hobari honen onuraduna izateko, hobaria eskatzen den eraikuntza etxebizitza den kasuetan, interesatuak eraikin horretan bi urte erroldatuta daramatzala egiaztatu beharko du edo bost urtetan eraikin horretan erroldatuta egoteko konpromezua hartuko du. Hobaria eskatzen den eraikuntza, etxebizitza ez den kasuetan ez da beharrezkoa izango eraikin horretan erroldatuta egotea.

Interes historiko-kulturala duen eraikin bakoitzeko lortu ahal izango da hobari hau.

Hobari honen onuraduna izateko, obrak, kasu guztietan, intereseko elementuak babestu beharko ditu.

— Nekazal jarduerari lotutako eraikuntzak eta bere etxebizitza.

Nekazal jarduerari lotuta dauden eraikuntzak eta bere etxebizitza, hau da, baserriak % 90eko bonifikazioa izango dute.

Hobaria Beizamako udalerrian dauden nekazal jarduerari lotutako eraikuntza eta bere etxebizitza zuzenduta dago.

Nekazal jarduerari lotuta dauden eraikuntzak jarduera hori aurrera eramateko beharrezko azpiegiturak dira, ikuiluak, negutegiak etabar. Bere etxebizitza berriz, nekazal jarduera aurrera eramaten duen nekazariaren etxebizitza izango da.

Bonifikazio hau jaso ahal izateko, nekazariak Udalaren aurrean frogatu beharko du hobaria eskatzen duen eraikuntza nekazal jarduerari lotuta dagoela edo bere etxebizitza dela.

Ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko du Udaletxean gutxienez:

— Nekazaritzako gizarte asegurantzan altan egotea.

— Soldata minimo interprofesionala nekazal jardueratik lortzen duen froga pertsona fisikoaren errenta aitortpenaren bitartez edo sozietateena.

— Bere Beizamako etxebizitzan 2 urte erroldatuta daramatzala egiaztatu beharko du edo etxebizitza berria egin behar badu han 5 urtez erroldatzeko konpromezua hartuko du.

— Nekazal jarduerari lotutako eraikuntza (eta etxebizitza) direla frogatu dezaken beste edozein agiri.

Onuradun bakoitzeko etxebizitza batek lortu ahal izango du hobari hau.

Aipatzen diren bi kasuetan, (interes historiko-kulturala eta nekazal jarduera) hobari horien onuraduna izateko interesatuak Udalari eskatu egin beharko dio, eskaerarekin batera goian aipatutako dokumentazioa erantsiko da eta Udalak gehiengo simplez erabakiko du onartzea edo ez. Erabakia hobariaren aldekoa bada zerga likidatzeko momentuan emango zaio. Hobaria emateko baldintzak hausten baditu hobaria Udalari itzuli beharko dio dagozkion interesekin.

2. Ondasun Higiezin gainera zerga.

Hirilurra Orokorra: %0,09.

Industrialia 0,2%.

Landalurra: %0,65.

5. Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, Beizamako udalak 100eko 50ko errekarua ezarri du zergaren kuota likidoaren

gainean. Errekargua zerga honen subjektu pasiboei exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, Katastroaren arabera etxebizitza gisa erabiltze-koak diren lokalak etxebizitza erabilera duten ondasun higiezintzat hartuko dira. Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira, finka erregistral bakarra osatzen dutenean. Ondorio horietarako ere, presuntzio egingo da etxebizitza erabilerako ondasun higiezin bat ohiko egoitza dela baldin eta, zergaren sortzapen egunean, hura kokaturik dagoen udalerriko erroldan egiaztatu badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela.

Ez da errekargu hau aplikatuko ondorengo kasuetan:

- Eraikinak ruina deklarazio bat gadu.
- Eraikinak etxebizitza izaera ez izatea.
- Eraikin hutsak nekazaritza jarduera izatea. Kasu hau jabe bakoitzeko eraikin bati bakarrik aplikatuko zaio.
- Etxeak edo baserriak habitagarritasun baldintzak ez betetzea.
- Etxeko titularrak, mendekotasun edo gaitzaren arrazoiak direla medio, etxea utzi behar badu.

· Hobariak:

- Beizaman erroldatua egotea
- Zerga eta tasen ordainketan egunean egotea.
- Laguntza zergaren %30ekoa izango da gehienez.
- Familia ugariko agiria izatea
- Pentsionista izatea eta jasotzen duen kopurua oinarrizko soldata bitartekoa izatea.

3. *Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga.*

_____ €

Turismoak:

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	20,29
9 eta 11,99 zaldi fiskal artekoak	40,56
12tik 13,99 zaldi fiskal artekoak	67,62
14tik 15,99 zaldi fiskal artekoak	94,68
16tik 19,99 zaldi fiskal artekoak	121,73
20 zaldi fiskaletik gorakoak	148,79

Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak	93,74
-----------------------------------	-------

21etik 50 plazara bitartekoak	133,50
50 plaza baino gehiagokoak	166,89
<i>Kamioiak:</i>	
Karga erabilgarriko 1.000 kg. baino gutxiagokoak ...	47,58
Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 bitartekoak	93,74
Karga erabilgarriko 2999tik 9.999 bitartekoak	133,50
Karga erabilgarriko 9.999 baino gehiagokoak	166,89
<i>Traktoreak:</i>	
16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	19,88
16tik 25 zaldi fiskal bitartekoak	31,25
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	93,74
<i>Atoi edo erdiatoiak:</i>	
Karga erabilgarriko 1.000 kg. baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiagokoak	19,88
Karga erabilgarriko 1.000 kg.tik 2.999 bitartekoak .	31,25
Karga erabilgarriko 2.999 baino gehiagokoak	93,74
<i>Beste ibilgailu batzuk: Ziklomotoreak eta motozi- kletak:</i>	
Ziklomotoreak	4,97
125 cc.ra bitarteko motozikletak	4,97
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	8,52
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	17,05
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	34,08
1.000 cc.tik gorako motorrak	68,16
TASAK	
1. <i>Zabor bilketa zerbitzuko tasa (sehilabeteko kuota).</i>	
€	
Etxebizitzak eta baserriak	33,94
Taberna, albergea	56,58
Industria	67,92

2. *Hilobi eta ehorzketa zerbitzua.*

€	
Hilobiak 12 urtez	211,56
Hezurtegia	158,67
Lur ematea	264,45
Exhumazioa euro/orduko	25

3. *Wifi zerbitzua.*

€	
Alta ematea	67,52
Hileko kuota BEZ barne	17,29

4. *Frontoiaren erabilera.*

€	
30 minutu	1,20

5. *Udal instalakuntza erabiltzeagatiko tasak.*

1. Natur eskolako gela:

€	
Egun erdia	21,16
Egun osoa	37,02

Irabazirik gabeko erakunde bat izanik eta herritarrak parte hartzen badute, tasa honek %100 hoberia izango du.

Gainontzeko erabiltzaileentzako hobariak:

Urtean 5 erabilera bitarte: %0 bonifikazioa.

Urtean 6-10 erabilera bitarte: %20ko bonifikazioa 6.etik aurrera.

Urtean 11-20 erabilera bitarte: %25ko bonifikazioa 11.etik aurrera.

Urtean 21 erabileratik aurrera: %30eko bonifikazioa 21.tik aurrera.

6. *Udal zerbitzu erabilera tasa.*

€	
Udako ludoteka	37,04
Asteko ludoteka	30,72
Eskulan tailerra hileko	15,43

Fax bidalketa	0,52
Fotokopiak eta eskanerra, orri bakoitza (10 kopiatik aurrera eguneko)	0,11
Fotokopiak koloretan orri bakoitzeko	0,14

7. *Tasak kontsulta eta baimen urbanistikoengatik.*

Simpleak (obra txikiak)	50,00	€
Obra handiak edo eraikin legeztatzea	100,00	

8. *Bide erabilera*

50,00.

9. *Taxia.*

Baimena	1.300,87	€
Baimena eskualdatzea	1.821,21	
Urteko ustiapena	60,00	

PREZIO PUBLIKOA

1. *Pellet.*

0,0793 kW/h.

Beizama, 2015eko abenduaren 9a.—Nekane Otaño Garciarena, alkatea. (10086)